

ASEGURUAK



Erreklamatu nahi baduzu

- 1 Lehenik eta behin, kexa edo erreklamazio bat aurkeztu behar diozu **aseguru-entitateari**.
- 2 Bi hilabeteko epean **erantzun ez badizute** edo erantzuna **egokia ez dela** uste baduzu, erreklamazio bat aurkez dezakezu Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusian.



Paperean egitekotan, helbide honetara zuzendu idazkia:

Erreklamazio zerbitzua

Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusia

Miguel Ángel kalea 21 28010 Madril (behin-behineko egoitza)



Bide telematikoz eta sinadura elektronikoarekin, webgunearen bidez. Bertan, erreklamatzeko moduari buruzko informazio gehiago aurkituko duzu:

<http://www.dgsfp.mineco.es/es/Consumidor/Reclamaciones/Paginas/InformacionProcedimiento.aspx>



Aurkeztu **eredu ofizialean** (webgunean eskuragarri), edo egin idazki bat honekin:

- ✓ Zure datu pertsonalak, pertsona interesdun gisa.
 - ✓ Erreklamazioaren xede den aseguru-entitatearen datuak.
 - ✓ Kexaren edo erreklamazioaren arrazoia.
 - ✓ Aldez aurretik aseguru-entitateari aurkeztutako erreklamazioaren egiaztagiria.
 - ✓ Lekua, data eta sinadura.
- + Halaber, erantsi erreklamaturako **gertakariei buruzko dokumentazioaren** kopia.



Zalantzarik izanez gero, kontsulta egin dezakezu telefonoz:

902 19 11 11 - 952 24 99 82 (Asteleheneretik ostiralera 9:30-14:30)

Gogoratu

- » Azaldu aseguratutako arriskuan edo haren larriagotzean eragina duten **inguruabarrak**.
- » Ezbeharren bat baduzu, jakinarazi **7 eguneko** gehieneko epean, epe luzeago bat finkatu denean izan ezik.
- » Peritazioarekin **ados ez bazaude**, beste bat eska dezakezu.
- » Aseguru bat **utzi nahi baduzu**, idatziz eta polizaren epemuga baino hilabete lehenago jakinarazi behar diozu konpainiari.
- » Konpainiak kontratua amaitutzat eman nahi badu, **bi hilabeteko** aurretiaz jakinarazi behar dizu. Epe horretan, edozein **aldaketaren** berri eman behar dizu (primaren zenbatekoan, adibidez). Onartzen ez baduzu, ezin izango zaitu kontratua luzatzera behartu.